Zazpigurutze K/ 2 behea
31740 **DONEZTEBE** (Nafarroa)
Tfnoa: 948. 45 17 46

Malerrekako Mankomunitatea
IFZ / NIF: P3147827D

**Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatearen eta Doneztebeko Euskaltegia Kultur Elkartearen arteko lankidetza hitzarmena *Etxetik plazara* egitasmoa diruz laguntzeko.**

**Convenio de colaboración entre la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka y Doneztebeko Euskaltegia Kultur Elkartea para subvencionar el proyecto *Etxetik plazara*.**

Donezteben, 2021-06-15

En Doneztebe, 15-06-2021

**BILDURIK:**

Alde batetik Jon Telletxea Juanenea (NAN 7267XXXX-X), Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko lehendakaria denez, erakunde horren izenean (P3147827D), indarrean dagoen legediak emandako ahalmenaren arabera.

Bertze aldetik, Margarita Macho Aguillo (NAN 2273XXXX-X), Doneztebeko Euskaltegia Kultur Elkarteko (IFK: G31246911) lehendakaria denez, erakunde horren izenean, bere estatutuen 18. artikuluan dioenari so, lehendakariak ordezkatuko baitu elkartea edozein instituzio ofizialen aurrean.

**COMPARECEN:**

De una parte, Jon Telletxea Juanenea (D.N.I. 7267XXXX-X), presidente de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka (P3147827D), actuando en nombre y representación de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka, al amparo de la legislación vigente.

De otra parte, Margarita Macho Aguillo (D.N.I. 2273XXXX-X), como presidenta de Doneztebeko Euskaltegia Kultur Elkartea (C.I.F. G31246911), actuando en representación de dicha entidad, que conforme al artículo 18 de los estatutos de la misma, representa a la entidad ante cualquier institución oficial.

**ADIERAZTEN DUTE:**

- Nafarroako Mendialdeko IKA euskaltegiek, Doneztebeko Euskaltegia barne, ***Etxetik Plazara*** proiektua abian dute. Proiektu horren helburua da eredu horietako euskal hiztunei euskara alfabetatzeko beste tresna bat eskaintzea, eta modu atseginean euskaraz idatzi eta irakurtzeko bide ematea. Proiektua paperezko aldizkariaren eta Xorroxin Irratian emititzen diren irratsaioen bitartez gauzatzen da.

- Egitasmo honek bat egiten du Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak (hemendik aitzinera *mankomunitatea*) eskualde honetan euskara normalizatzeko duen helburuarekin, eta zehatzago herritarrei euskara

**EXPONEN:**

- Los euskaltegis de IKA en la montaña de Navarra, incluido el euskaltegi de Doneztebe, han puesto en marcha el proyecto ***Etxetik Plazara***. El objetivo de este proyecto es ofrecer herramientas para la alfabetización en euskera y dar opción a escribir y leer en dicho idioma. El proyecto se lleva a cabo mediante una publicación que se inserta en la revista Ttipi-ttapa y en un programa de radio en Xorroxin Irratia.

- Se considera que este proyecto se complementa adecuadamente con los objetivos de normalización del euskera que tiene la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka (en adelante *mancomunidad*)

ikas dezaten beharrezkoak diren bitartekoak jartzeko eta horretan ari direnei laguntzak emateko helburuarekin.

encomendados en sus estatutos, entre ellos con el objetivo concreto de ofrecer medios y ayudas para que las personas de Malerreka puedan aprender euskera.

Horiek horrela, bi aldeek beren arteko lankidetza arautzeko asmoarekin hitzarmen hau egin dute.

Ambas partes, con el fin de regular la colaboración, acuerdan suscribir este convenio de colaboración.

**HITZARTU DUTE:**

**ACUERDAN:**

**Lehenik.-** Proiektu honek bere helburuak betetzen jarrai dezan mankomunitateak 2.900 euroko diru laguntza emanen dio Doneztebeko Euskaltegiari. Horretarako mankomunitateko aurrekontuan proiektuaren izenarekin izendatutako partidako kreditua erabiliko du (*1 3350 48206 Etxetik Plazara* kontu saila).

**Primero.-** Para que se siga cumpliendo la finalidad de este proyecto, la mancomunidad concederá 2.900 euros a Doneztebeko Euskaltegia. Para ello, la mancomunidad utilizará el crédito presupuestario disponible en la aplicación presupuestaria denominada con el nombre del proyecto (aplicación presupuestaria *1 3350 48206 Etxetik Plazara*).

Diru laguntza bi zatitan ordainduko du, lehena hitzarmena sinatu ondotik, eta, bigarrena, fundazioak eskatutako dokumentazioa aurkeztutakoan hau aztertu eta lehendakariak ordaintzea ebatzi ondotik.

La subvención se abonará en dos partes, la primera tras la firma de este convenio, y la segunda tras la presentación de la documentación requerida, el análisis de la misma y la resolución de presidencia que ordene su pago.

**Bigarrenik.-** Doneztebeko Euskaltegiak honakoak eginen ditu:

1. Etxetik Plazara egitasmoarekin aitzinera jarraituko du, orain arte bezala.
2. Aldizkarian nahiz irratian mankomunitateak emandako laguntzaren berri emanen du.
3. **2021eko abenduaren 14a** baino lehen, dokumentazio hau aurkeztu beharko du:
    a. Urteko jardueren memoria. Egitasmoaren nondik norakoak jasoko ditu, besteak beste, helburuak eta informazio orokorra, aldizkariaren zabalkunde eremua, ale kopurua, maiztasuna, atalak, eduki nagusiak, funtzionamendua, jaso ohi diren erantzun kopurua, irratsaioen inguruko informazioa (maiztasuna, iraupena, programazioaren egitura, etab.)
    b. Ekitaldi ekonomiko horri dagokion

**Segundo**.- Los compromisos que adquiere Doneztebeko Euskaltegia son:

1. Dará continuidad al proyecto Etxetik Plazara.
2. Dará a conocer la subvención recibida de la mancomunidad tanto en la publicación como en el programa de radio.
3. Tendrá que presentar la siguiente documentación **antes del 14 de diciembre:**
    a. Memoria de las actividades realizadas durante el 2021. Recogerá, entre otros aspectos, los objetivos e información general, difusión geográfica de la publicación, número de unidades publicadas, secciones, contenidos principales, funcionamiento, número de respuestas que se suelen recibir e información sobre el programa de radio (frecuencia, duración, estructura del programa, etc.).
    b. Memoria económica indicando los

memoria ekonomikoa, sarrerak eta gastuak xeheki zehaztuz:

ingresos y gastos del ejercicio económico:

- Diru-sarrerak: bertzelako erakunde publikoetan eta beste autonomia erkidego batzuetako administrazioetan eskatu edo harturiko laguntza guztiak espresuki adieraziko dira, bai eta partikularrek emandakoak edo enpresa pribatuetako bestelako diru sarrerak (babesak, publizitatea…).

- Ingresos: se indicarán las solicitudes y los ingresos obtenidos de otras entidades públicas, también las realizadas a administraciones de otras comunidades autónomas; así como los ingresos obtenidos de particulares o empresas privadas (patrocinio, publicidad…).

- Gastuak: ongi zehaztu behar dira langileak eta kolaboratzaileak kontratatzetik sorturiko gastuak, ustiapen gastu orokorrak eta funtzionamendu eta banaketa gastuak zein eta zenbatekoak diren. Nahikoa izanen da jasoko den diru laguntzaren zenbatekoa (2.900 €) justifikatzen duten gastuen agiriak aurkeztea.

- Gastos: Se indicarán los gastos derivados de la contratación de personas trabajadoras o colaboradoras, gastos generales de explotación y gastos de funcionamiento y distribución, concretando cuales son y la cuantía. Como mínimo se deberán justificar gastos por el valor de la cuantía de la subvención que concede la mancomunidad (2.900 €)

c. Zinpeko aitorpena, adieraziz haien diru sarrerak aurkeztutako dokumentazioan agertzen diren horiek direla, eta ez gehiago; eta edozein kasutan sarrera horiek ez direla gastuak baino handiagoak izan.

c. Declaración jurada indicando que los ingresos son los expuestos en la documentación, y no superiores; y que el cualquier caso, los ingresos no son superiores a los gastos.

Dokumentazioa Malerrekako Mankomunitatean (Zazpigurutze, 2, beheiti. Doneztebe) aurkeztu behar dute, edo urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein lekutan.

La documentación se presentará en la Mancomunidad de Malerreka (Zazpigurutze, 2 bajo. Doneztebe), o en los lugares fijados en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**Hirugarrenik.-** Mankomunitateak, bere aldetik, eta diru laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legeari loturik, honako eginkizun hauek beteko ditu:

**Tercero**.- la Mancomunidad, por su parte, de conformidad a la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, cumplirá los siguientes compromisos:

1. Emandako diru laguntzaren kontrola eginen du laguntza oinarritzen den helburua eta ekintzak benetan bete direla egiaztatu ahal izateko.

1. Controlará y comprobará que la subvención se utilice para los objetivos y actividades que se han concretado.

2. Aipatu 38/2009 Legeari jarraituz, diru laguntzaren oinarriak bete ez direla frogatzen bada edota egoki egiaztatu ez direla

2. Conforme a la mencionada Ley 38/2003, si se comprueba que no se cumplen las bases o que no se ha justificado de manera adecuada la

ikusiz gero, diru publikoa berreskuratzeko prozedura eta espedienteak izapidetuko ditu.

subvención otorgada, la Mancomunidad tramitará los procedimientos y expedientes necesarios para la devolución del dinero público.

**Laugarrenik.-** Hitzarmen honen iraupena urtebetekoa da.

**Cuarto.-** La duración de este convenio es de un año.

**Bosgarrenik**.- Hitzarmen honen interpretazioa mankomunitateari dagokio, eta euskaltegiak mankomunitatearen erabakiak onartu beharko ditu.

**Quinto.-** La interpretación de este convenio le corresponde a la mancomunidad, y el euskaltegi tendrá que aceptar las decisiones de la mancomunidad.

Balizko auzigaiak bide administratiboan konponduko dira, indarrean dauden legezko xedapenekin bat.

Las posibles cuestiones litigiosas se dirimirán por vía administrativa, según la legislación vigente.

Eta horrela jasoa gera dadin, bi aldeek agiri hau onartu dute, bai eta bi ale sinatu ere eragin bakarrerako.

Y para que así conste, estando las dos partes conformes con el documento firman dos copias para un único efecto.

MALERREKAKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIA

Jon Telletxea Juanenea

MALERREKAKO IKA EUSKALTEGIA

Margarita Macho Aguillo